# 2021eko maiatzean erregistratutako langabezia

2021ko maiatzean zehar LANBIDEko bulegoetan % 3,44 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 122.618 da, aurreko hilean baino 4.364 gutxiago. Maiatzean langabezia jaitsi egin ohi da. Krisi aurreko garaian hala izan zen, krisi urteetan ere bai, eta hala izan da azken urteetan ere, 2020an izan ezik, osasun krisiaren ondorio.




| | may.-07 | may.-08 | may.-09 | may.-10 | may.-11 | may.-12 | may.-13 | may.-14 | may.-15 | may.-16 | may.-17 | may.-18 | may.-19 | may.-20 | may.-21 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Saldo | -5.046 | -1.694 | -3.367 | -4.652 | -4.808 | -988 | -371 | -3.206 | -5.934 | -4.548 | -2.772 | -2.103 | -1.771 | 3.072 | -4.364 |

Aurreko urteko maiatzarekin alderatuz, 19.097 pertsonetan murriztu da langabezia. 2020ko otsailarekin alderatuz (krisi hasi aurreko hilabetea) 5.379 langabe gehiago zenbatu dira,.

# 2021eko maiatzean erregistratutako langabezia

- **SEXUA**

Azken hilabetean, balore absolutuetan, langabezia emakumezkoen artean gehiago murriztu da (-2.210) gizonezkoen artean baino (-2.154). Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago murriztu da (-9.891) emakumezkoen arten baino (-9.206); krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere gehien kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa daramate. Gaur egun langabeen % 55,8 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia murrizketa nabarmenenak 35-44 urte artekoen artean (-1.253) eta 25-34 urte artekoen artean (-1.247) izan dira. Urte arteko bilakaeran ere 25-34 adin tartean (-% 24,72) eta 35-44 adin tartean (-% 19,51) izan dira murrizketa nabarmenenak.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Maiatzean zehar, langabezia murriztu egin da sektore guztietan. Balio erlatiboetan, lehen sektorean izan da jaitsiera nabarmenena (-% 8,10), eta ondoren industrian (-% 3,77). Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 2,79 murriztu da. Balore erlatiboetan eta aurreko urteko datuarekin alderatuz industria sektoreko jaitsiera (-% 18,97) eta zerbitzuetakoa (-% 15,02) nabarmentzen dira. Aurretik enplegurik izan ez dutenen artean % 1,76 hazi da.

Datuak zehatzago aztertuta, langabezia murrizketa handienak izan dituzten jarduerak hauek izan dira: janari eta edarien zerbitzuak (-630), txikizkako merkataritza (-379), enpleguarekin lotutako jarduerak (-264) eta lehen sektoreko jarduerak (-216). Langabezia hazkunde nabarmenenak finantza zerbitzuetan (+23), zabor bilketa eta tratamenduan (+22), posta zerbitzuetan (+22) eta energia hornikuntzan (+5) izan dira.

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 1.235 pertsonatan murriztu da (-% 1,78) eta epe laburrekoa ere murriztu egin da 3.129 pertsonatan (-% 5,43). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabeen artean murrizketa bat eman da (-% 30,41) eta epe luzekoen artean, aldiz, hazkundea (% 7,43). Gaur egun 68.132 langabe, % 55,6, epe luzeko langabeak dira.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Maiatzean langabeziaren bilakaera hiru lurraldeetan ondorengoa izan da: Araban % 4,71 murriztu da (1.018 pertsona gutxiago), Gipuzkoan % 3,35 murriztu da (1.129 pertsona gutxiago) eta Bizkaian % 3,09 murriztu da (2.217 pertsona gutxiago).

Urte arteko saldoari erreparatuz Gipuzkoak erregistratu du eboluzio hoberena % 14,97ko murrizketarekin; Arabak jarraitzen dio % 13,32ko murrizketarekin eta azkenik Bizkaian % 12,80 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 695 pertsonatan murriztu da langabezia (-% 2,74), Gasteizen 749 pertsonatan (-% 4,46) eta Donostian 291 pertsonatan (-% 3,41). Murrizketa nabarmenak izan dituzten beste eskualde batzuk, Ezker Eskualdea (-565), Gobela (-160), Arabar Errioxa (-153) eta Bidasoa Behera (-150) izan dira. Inongo eskualdean ez da hazi langabezia.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 19,07), Sestao (% 17,77), Balmaseda (% 16,80), Alonsotegi (% 16,73) eta Santurtzi (% 15,87%).

## • LANGABEZIA-PRESTAZIOA

2021ko maiatzean 41.129 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 1.583 langabe gutxiagok. Langabeen % 33,5k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 21.388 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 17,4 dira horiek. 19.741 langabek (% 16,10), berriz, langabezia prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 35,7), Araban % 32,7koa da eta Bizkaian % 33,5ekoa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0.09 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz 2,83 murriztu da.

Maiatzean ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua murriztu egin da.

## • JATORRIA

Langabeen % 16,32 (20.016 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia % 3,36 murriztu da atzerritarren artean, eta % 3,45 bertakoen artean. Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 12,35 murriztu da, eta bertakoen artean % 13,69.

Langabe atzerritarren % 34 Afrika iparraldekoak dira, % 24,3 Latinoamerikatik datoz, % 18,3 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,6 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,7, azkenik, Asiatik. Maiatzean Latinoamerikatik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-200), eta Afrikako iparraldetik etorritakoak ondoren (-189).

## • IKASKETA MAILA

Langabeen % 60,8k (74.606 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 2.174 langabetu gutxiago erregistratu dira. Talde horretan % 2,83 murriztu da langabezia azken hilean. Azken urtean % 10,93 murriztu da langabezia talde honetan. Urteko erlazioan gutxien murriztu den taldea izan da.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 9,0 dira. Talde horretan % 4,16 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 16,21. Azken hilabetean gutxien murriztu den taldea izan da.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 22.558 dira, hau da, langabeen % 18,4. Talde hau maiatzean zehar % 4,10 murriztu da, eta azken urtean % 14,65.

Azkenik, langabeen % 11,8k (14.444 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 4,92 murriztu da langabezia azken hilabetean eta % 21,42 azken urtean. Hileko eta urteko erlazioan bilakaera hoberena izan duen taldea da.

## • KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 129.378 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 0,99ko murrizketa). Guztira 3.781.250 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 3,44 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 7,63 murriztu da, Errioxan % 6,16, Kantabrian % 4,08 eta Gaztela eta Leonen % 4,91. Katalunian % 3,09 murriztu da eta Madrilen % 2,41.

Urte arteko erlazioan % 13,48 murriztu da langabezia EAEn eta Estatuan % 1,98.

## Lan-eskatzaile langabeak 2021ko maiatzean

| | mai-2021 | api-2021 | Saldoa | Bil % |
|---|---|---|---|---|
| **SEXUA:** | | | | |
| GIZONEZKOAK | 54.232 | 56.386 | -2.154 | **-3,82** |
| EMAKUMEZKOAK | 68.386 | 70.596 | -2.210 | **-3,13** |
| **25 URTEZ AZPIKOAK:** | | | | |
| GUZTIRA | 10.017 | 10.887 | -870 | **-7,99** |
| GIZONEZKOAK | 5.527 | 5.721 | -194 | **-3,39** |
| EMAKUMEZKOAK | 4.490 | 5.166 | 12 | **-13,09** |
| **25-44 URTE:** | | | | |
| GUZTIRA | 49.281 | 51.781 | -2.500 | **-4,83** |
| GIZONEZKOAK | 20.729 | 22.135 | -1.406 | **-6,35** |
| EMAKUMEZKOAK | 28.552 | 29.646 | -1.094 | **-3,69** |
| **45 URTEZ GORAKOAK:** | | | | |
| GUZTIRA | 63.320 | 64.314 | -994 | **-1,55** |
| GIZONEZKOAK | 27.976 | 28.530 | -554 | **-1,94** |
| EMAKUMEZKOAK | 35.344 | 35.784 | -440 | **-1,23** |
| **SEKTOREA:** | | | | |
| NEKAZARITZA ETA ARRANTZA | | | | |
| INDUSTRIA | 2.519 | 2.741 | -222 | **-8,10** |
| ERAIKUNTZA | 14.036 | 14.586 | -550 | **-3,77** |
| ZERBITZUAK | 8.031 | 8.246 | -215 | **-2,61** |
| AURREKO ENPLEGURIK GABE | 82.140 | 85.061 | -2.921 | **-3,43** |
| **LURRALDE HISTORIKOA:** | 15.892 | 16.348 | -456 | **-2,79** |
| ARABA | | | | |
| BIZKAIA | | | | |
| GIPUZKOA | 20.615 | 21.633 | -1.018 | **-4,71** |
| EAE | 69.422 | 71.639 | -2.217 | **-3,09** |

| | Langabetuak | Erregistratutako langabezia indizea | Aurreko hilabetea | | Aurreko urtea | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Saldoa | Bil % | Saldoa | Bil % |
| Bidasoa Behera | 4.228 | 11,4% | -150 | -3,43 | -812 | -16,11 |
| Oarsoaldea | 3.826 | 10,5% | -129 | -3,26 | -584 | -13,24 |
| Donostia-S.Seb. | 8.246 | 9,3% | -291 | -3,41 | -1.148 | -12,22 |
| Donost.Mendebaldea | 3.264 | 8,9% | -54 | -1,63 | -405 | -11,04 |
| Tolosaldea | 2.068 | 8,8% | -87 | -4,04 | -332 | -13,83 |
| Urola Erdia | 1.238 | 8,0% | -51 | -3,96 | -280 | -18,45 |
| Goiherri | 1.672 | 7,8% | -67 | -3,85 | -346 | -17,15 |
| Deba Garaia | 2.407 | 8,0% | -138 | -5,42 | -662 | -21,57 |
| Deba Behera | 2.822 | 10,6% | -39 | -1,36 | -573 | -16,88 |
| Urola Garaia | 1.115 | 9,2% | -55 | -4,70 | -252 | -18,43 |
| Urola Kosta | 1.695 | 7,6% | -68 | -3,86 | -342 | -16,79 |
| **GIPUZKOA** | **32.581** | **9,3%** | **-1.129** | **-3,35** | **-5.736** | **-14,97** |
| Vitoria-Gasteiz | 16.044 | 12,6% | -749 | -4,46 | -2.289 | -12,49 |
| Aialako Ibarra | 2.442 | 12,8% | -27 | -1,09 | -233 | -8,71 |
| Arabar Errioxa | 627 | 11,4% | -153 | -19,62 | -94 | -13,04 |
| Arabako lautada | 736 | 9,7% | -25 | -3,29 | -81 | -9,91 |
| Gorbeia inguruak | 328 | 7,0% | -4 | -1,20 | -32 | -8,89 |
| Arabako Ibarrak | 420 | 8,2% | -36 | -7,89 | -48 | -10,26 |
| Arabako Mendialdea | 102 | 6,5% | -21 | -17,07 | -27 | -20,93 |
| **ARABA** | **20.615** | **12,2%** | **-1.018** | **-4,71** | **-3.167** | **-13,32** |
| Gobela | 5.034 | 9,9% | -160 | -3,08 | -732 | -12,70 |
| Txorierri | 2.365 | 10,4% | -105 | -4,25 | -324 | -12,05 |
| Uribealdea | 3.169 | 9,6% | -149 | -4,49 | -519 | -14,07 |
| Durangaldea | 3.521 | 9,5% | -115 | -3,16 | -944 | -21,14 |
| Busturialdea | 2.329 | 10,8% | -84 | -3,48 | -441 | -15,92 |
| Lea-Artibai | 983 | 8,2% | -37 | -3,63 | -321 | -24,62 |
| Enkarterriak | 2.109 | 13,7% | -18 | -0,85 | -319 | -13,14 |
| Arratia-Zornotza | 1.559 | 8,9% | -68 | -4,18 | -332 | -17,56 |
| Arratia-Nerbioi | 1.378 | 10,6% | -42 | -2,96 | -163 | -10,58 |
| Bilbo | 23.818 | 14,3% | -695 | -2,84 | -2.991 | -11,16 |
| Ezkerraldea | 18.220 | 14,7% | -565 | -3,01 | -2.406 | -11,66 |
| Ibaizabal | 4.837 | 12,0% | -177 | -3,53 | -667 | -12,12 |
| **BIZKAIA** | **69.422** | **12,5%** | **-2.217** | **-3,09** | **-10.194** | **-12,80** |
| **EAE** | **122.618** | **11,4%** | **-4.364** | **-3,44** | **-19.097** | **-13,48** |

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez da-tor bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dulantziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.